

MUTILOAKO UDALA



2022KO AZAROAREN 23KO EZOHIKO BILKURA

LEKUA: Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

DATA: Bi Mila eta hogeita biko azaroaren hogeita hiruan.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Iñaki Ugalde Alustiza.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariezkurrena

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

Iñaki Zabalo Etxezarreta.

EZ BERTARATUTAKOAK:

Erkuden Agirre Arruabarrena.

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika.

BATZARRA: Ezohikoa

DEIALDIA: Lehenengoa



HASIERA ORDUA: Arratsaldeko 19:00etan

AMAIERA ORDUA: Arratsaldeko 20:00etan.

GAI ZERRENDA:

- **2021eko Kontu Orokorra espedientearen behin-betiko onarpena, hala badagokio.**

Ikusirik Udal honetako Kontu Batzorde Bereziak, 2022ko irailaren 21ean eginiko bileran bere oniritzia eman ziola 2021eko ekitaldiko aurrekontuaren Kontu orokorrari.



MUTILOAKO UDALA

Ikusirik Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoa jarraituz, hamabost eguneko epean jendaurrean egon zela txosten hori, inongo erreklamazio edo oharrik aurkeztu gabe epe horretan (iragarkia 2022ko irailaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Kontutan hartuta 21/2003 Foru Arauko 63.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, 2021eko Aurrekontuaren Kontu Orokorra Udal Osoko Bilkurari onartzea dagokiola.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

ERABAKI DU :

LEHENA: 2021eko Udal Aurrekontuaren Kontu Orokorraren espedientea behin-betiko izaeraz onartzea.


BIGARRENA: Kontu Orokorraren onarpenaren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, bere erregelamendu propioek ezartzen dutenaren arabera.

- **2022ko 2 zenbakidun Kreditu Aldaketa espedientea hasierako izaeraz onartzea, hala badagokio.**

2022/02 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.


2022/02 zenbakidun Aurrekontuaren Kreditu aldaketa espedientea ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, hasierako onarpenerako aurkeztu da. 2022/02 espedientea kreditu gehigarriak onartzeko da eta jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Kreditu Aldaketa espediente honen helburua da Batzorde desberdinetan adostu ondoren, aurrekontuan krediturik gabe geratu diren gastu arrunta eta inbertsioei kreditua aurreikustea, dena gerakinaren kontura.



MVTILOAKO VDALA

Gai hau aztertu eta eztabaidatu ondoren, aurkeztutako espedientea aho batez onartu da.



- **Estaduak onartutakoaren arabera, EUDELeK bidalitako proposamenarekin bat etorriz, 2022 urterako Udal langileen ordainsarien %1,5eko igoera onartzea 2022-01-01eko ondorioekin, hala badagokio.**

HONAKO HAU IKUSITA:

Estaduak Urriaren 19ko 18/2022 Errege-Dekretua onartu ondoren, Estaduko Aldizkari Ofizialean argitaratu zela, eta bere 22. Artikuluak honela esaten duela hitzez-hitz: 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. Tituluko I eta II ataletan eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ehuneko 1,5eko gehikuntza izango dute 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez, 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabetei dagokien igoera.

KONTUAN HARTUTA:

EUDELeko 2022ko urriaren 21ean bidalitako idatzia non gai honi buruzko argibideak ematen dituen.

Hori dena kontuan hartuta, gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez, honako hau

ERABAKI DU:


BAKARRA:

Mutiloako Udal langileen ordainsariak %1,5eko igorera onartzea, 2022ko urtarrilaren 1eko ondorioekin, eta igoera hau azaroko nominan gauzatzea.

- **Hainbat kontratazio esleitzeko proposamena onartzea, hala badagokio.**
- **Pilotalekuaren pintaketa:**



MVTILOAKO UDALA



Kontuan hartuta, obra honi buruz aurkeztutako 3 aurrekontu hauek:

1.- HIRUGARRENA: CONSTRUCCIONES SEBASTIAN RAMOS.

- AURREKONTUAREN PREZIOA: 38.933,86 (BEZ aparte).
- AURREKONTUAREN DATA: 2022-09-30.

2.- HIRUGARRENA: Pinturas La Perla S.L.

- AURREKONTUAREN PREZIOA: 17.741,00 euro (BEZ aparte).
- AURREKONTUAREN DATA: 2022-11-23

3.- HIRUGARRENA: Anaiak Garcia.

- AURREKONTUAREN PREZIOA: 20.278,44 euro (BEZ aparte)
- AURREKONTUAREN DATA: 2022-11-21

Kontuan hartuta badagoela nahiko kreditua gastu honi aurre egiteko eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzten dela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera (40.000,00 euro baino gutxiagokoa delako).

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Pilotalekuaren pintaketa lanak Pinturas La Perla S.L. enpresari esleitzea 17.741,00 eurotan, BEZ aparte.

- **Pilotalekuaren argiteria LED-era pasatzea:**


Kontuan hartuta, obra honi buruz aurkeztutako 2 aurrekontu hauek:

1.- HIRUGARRENA: MATTIN ELEKTRIZITATEA

- AURREKONTUAREN PREZIOA: 5.656,00 (BEZ aparte).
- AURREKONTUAREN DATA: 2022-11-23

2.- HIRUGARRENA: Natrus S.L.

- AURREKONTUAREN PREZIOA: 6.419,00 euro (BEZ aparte).



MUTILOAKO UDALA

- AURREKONTUAREN DATA: 2022-09-28

Kontuan hartuta badagoela nahiko kreditua gastu honi aurre egiteko eta Kontratu Txikia sailkapenean sartzen dela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 118.1 Artikuluan xedatutakoaren arabera (15.000,00 euro baino gutxiagokoa delako).

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aho batez, honako hau,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Pilotalekuaren argiterria LED-era pasatze lanak Mattin Elektrizitateari esleitzea 5.656,00 eurotan, BEZ aparte.

- **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.

